



# OPORRAK HOZKAILUAN

Joan De Déu Prats

*Lurdes Auzmendiren itzulpena  
Leire Iparragirrereren marrazkiak*

Desclée De Brouwer





Marrubi soro handi batean,  
txano gorri eta deigarri baten  
azpian, Balduf gnomoa zegoen  
atsedena hartzen. Intsektuen  
burrunbak kulunkatzen zuen  
eta haren pentsamenduak libre  
zebiltzan hegan arratsalde lasai  
hartan.



Orduan aharrausi egin zuen.  
Oso aspertuta zegoen. Eta  
harrituta, eskualdeak hain  
denbora laburrean izandako  
aldaketarengatik. Orain, bakea  
eta baretasuna ziren nagusi, eta  
hori Baldufek ezin zuen eraman.



*Troll*-ak bekozko ilunekin  
zetozelako azkar ezkutatu  
beharrean aurkitzen ziren  
garaiak faltan botatzen zituen.  
Hura bai zela zirraragarria...



Tamalez, *troll* guztiak pozoitu  
egin ziren artasoro batean  
festa zaratatsu bat ospatzen  
zuten bitartean, hegazkin arin  
batek pestizidarekin zipriztindu  
eta gero. Aste oso bat pasatu  
zuten eztulka eta eztulka eta,  
azkenean, begiak negarrez eta  
eztarriak narritatuta zituztela,  
eskualde hartatik ihes egitea  
erabaki zuten.



Ez ziren geratzen ezta ninfak  
eta elfoak ere. Zeinen ondo  
pasatzen zuen basoko erreka  
galduen bazterretan haien  
kantuak entzuten! Baina uholde  
batzuek ura pneumatiko,  
plastiko eta aparrarekin zikindu  
zutenetik elfoek eta ninfek  
inspirazioa galdu eta gehiago ez  
zuten abestu.



Eta hainbeste beldur eman  
zioten azeri maltzur eta  
beldurgarri haien arrasto  
txikienik ere ez zegoen!

Tripazainen klubeko  
igandekarieen azken barbekuaz  
geroztik (baso erdiak erreta  
amaitu baitzuen), animaliak ez  
ziren beraien gordelekuetatik  
irtetera ausartzen.



